

## JARDUERA GILTZARRIAK

Gure produktuaren diseinua eta materiala guk aukeratuko ditugu; diseinua ergonomikoa da, bakoitzaren burura egokitzeko. Gainera, arinak dira, bezeroek pisurik ez eramateko, eta horretarako, tamaina txikiko teknologia erabiliko dugu. Kargari dagokionez, produktuaren kargarako euskarri eta kable batekin saltzen dugu. Aurikularrak euskarri horretan sostengatuz gero, kargatzen hasten dira. Aurikularraren izkin batean agertzen den argi gorri baten bidez jakin dezakegu bateria amaitzen dagoela, eta erabiltzen zauden bitartean, soinu motx bat egiten du aurikularrari bateria bukatzeko gutxi falta zaiola jakinarazteko.

Kolore aldetik hiru aukera eskeintzen ditugu sentsazioa desberdinak direla eta. Lehenik, zuri mate kolorea dugu; kolore honetako aurikularrak, bakea eta lasaitasuna ematen dute, kolore hau oso kolore garbia da, zikintzen ez dituzun bitartean. Ondorengo kolorea, beltz matea izango litzake; kolore honek dotoretasuna eta seriotasuna transmititzen dio soinean daraman pertsonari. Beltza, konjuntatzeko oso erraza eta eroso den kolore bat da, eta horregatik kolore hau gomendatzen dugu gure bezeroentzat. Azkenik, kolore gorria daukagu; honek, pasioa eta modernitatea transmititzen du, oso kolore bizia denez jende ausartak erabiltzeko daude pentsatuta. Izan ere, etorkizunean aurikular pertsonalizatuak egitea aurreikusten dugu. Adibidez zuriak izkinean kolore doratuarekin edo zure hasierako letrarekin.

Aurikular hauek funtzio berezi bat izango dute; aurikularrak kaxatik ateratzean eta zure buruan jartzean biztu egiten dira (airpod-en moduan). Itzaltzeko, eskubiko alde zapalduta mantendu behar duzu 5 segundu inguruan, eta itzaltzerakoan "klin" soinua egiten du. Bolumena errugulatu daiteke, soinua altuago entzuteko, eskubiko aldeko borobilari aurrera bueltak eman behar zaizkio, eta alderantziz, bolumen jaisteko eskubiko borobilari atzera bueltak eman behar zaizkio. Kantak saltatzeko eskubiko aldean bi toke emanez nahikoa da. Funtzionamendu guztia eskubiko aldearekin egiten da. Esan dezakegu hauen erabilera oso erraza dela eta edonerek erabil dezakeela.

Aurikular hauek egiteko pentsatu dugun materiala, plastiko birtziklatua da, gure enpresak duen helburuetako bat ingurumena zaintzea delako. Jendeak behar ez dituen plastikozko produktuak erabiliz sortzen dugu gure aurikularren produktua. Gainera, plastikoa arina da eta horrela beste helburuetako bat betetzen dugu. Estaltzeko erabiliko dugun materiala lignina polimero fenoliko bat da, material hau, lotura desberdinek osatzen dute. Ligninarekin, gure ingurumena gehiago babestea lortuko dugu, landareek duten material naturala delako. Material hau, urarekiko eta hautsarekiko erresistentea da. Hori, ligninak dituen propietateengatik da. Lignina, erlatiboki hidrofoboa da eta horrek iragazgai eta agente antimikrobiano gisa funtzionatzen du.

Gure proiektu hau beste enpresa bati erakutsiko diogu, beraiek gure aurikularrak egiteko. Gure ideiak, diseinua eta erabili nahi den materiala beste enpresa teknologiko batekin adostuko dugu beraiek proiektua garatzeko.

Aurikular hauek saltzeko gure webgune bat sortuko dugu. Webgune hau, beste pertsona batek sortuko digu, informatikari batek. Behin webgunea eta saltzeko gunea egina dagoenean webgune hori guk eramango dugu. Beti ere, arazoren bat ematen badu, konponbidea informatikalari batek emango digu.

Aurikularrak, hasiera batean, orain esandako webgunean salduko ditugu, baina egun batzuetan denda ofizialetan egongo dira, adibidez rebajetan. Horrela, dendetan ikusita, jendearen arreta piztuko du eta dendan erosi edo webgunean erosi dezake.